

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko urtarrilak 26 · 1298 zenbakia



OASI BAT ANTZERKIARENTZAT

EUKi
ASEGURUAK

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**



AUTO ASEGURUA

MOTORRA EDO FURGONETA
... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA,
KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA,
ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKAITZA**

Informazio gehiago: eukiseguros.com

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Axola zaizun informazioa inoiz baino **gertuago**



etakitto.eus



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Antzerki Jardunaldiak otsailaren 14an hasiko dira Anabel Alonso aktorearen solasaldiarekin eta martxoaren 21era arte 22 ikuskizun eskainiko dituzte Coliseo antzokian, Hezkuntza Esparruan eta herriko kaleetan.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

"Esnearen kolorekoa"

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Adimen artifizialak moralak ebatz ditzan entrenatzen ari dira. Hautatu duten testuingurua kotxe automatikoena da. Dilemak klasikoak dira. Kotxean zoaz eta bi moto dituzu parean. Maniobra arraroa egin eta baten edo bestearen kontra joan behar duzu. Gidarietako batek kaskoa jantzia du; besteak ez. Helburua da ahalik eta min gutxiene egitea. Zer egin behar dugu, kaskoa duenaren kontra jo? Bizirau-teko aukera gehiago du. Baina ez litzateke hori, hain zuzen, arduraz jokatu duena zigortzea?

OIER IMAZ, zutabegilea

Aurten bizitzen dihardugun gripe epidemia Covid-aren aurrekoen antzerakoa da, eta ez larrienetakoa bereziki. Maskarilla ezartzea derrigortu barik ere, jendeak orokorrean betetzen zuen hori. Basurton orain 60 paziente artatzen baditugu, aurretik 100 pazientera ere heldu ginen A gripearen epidemia indartsuetan.

VICTOR BUSTAMANTE, Osakidetza

Zenbateko gastua egin beharko genuke Eusko Jaurlaritzak dituen funtzionario guztien soldatak %10 igotzeko, euren eskaerei aurre egiteko? Diru horrekin, urtero bost ospital egingo genituzke, 10 ordegailu kuantiko erosi edota 73 institutu eraiki. Mugarik gabe eskakizun guztiei baietz esaten dionak, guztia ahal dela dioenak, gure gizartearen etorkizunarekin jokutzen du. Jarrera hori arduragabea da, eta egoista aldi berean.

IÑIGO URKULLU, lehendakaria

ETB1 ez du ia inork ikusten. Badakitelako euskarak edo euskaldunak ezker abertzalearen munduan mugitzen direla. ETAREN ekarpen garrantzitsua izan zen aurrerakoia izatea zentzu zabal batean, eta eman zion euskarari garrantzi handia, eta hori islatu da gero ezker abertzalean eta euskal munduan. EITBkoek pentsatzen dute eukaran inbertitzea ezker abertzalean inbertitzea dela.

JOSE FELIX AZURMENDI, kazetari-ohia

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OSTERUNTZIAN / OSTIAN / OSTIANTZIAN → Osterantzean, bestela. "Alde batera laga ezker nagia zana, jokolarixa eta gonazalia, ostian ona eta maittia zane nere senarra".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 26
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 28
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 29
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
MARTITZENA 30
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 31
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 1
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 2
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Mari Luz Urkidi Etxaniz.** 92 urte. 2024-01-18.
- **Jose Maria Lizarralde Garate.** 80 urte. 2024-01-18.
- **Teresa Lekunberri Goikoetxea.** 92 urte. 2024-01-19.
- **Lourdes Izagirre Boneta.** 64 urte. 2024-01-19.
- **Enrique Amesti Narbaiza.** 96 urte. 2024-01-23.

Jaiotakoak

- **Larus El Kajtii.** 2024-01-05.
- **Siman El Mossaoui.** 2024-01-11.
- **Amina Fatima Cayo.** 2024-01-12.
- **Ibai Mugartegi Conde.** 2024-01-19.
- **Koldo Ayuso Matute.** 2024-01-19.



ARGAZKIA: AITOR BUENDIA

Eibarko eta eskualdeko ordezkariak FITUR Nazioarteko Turismo Azokan daude

Aurten ere Debarreneko eskualdea FITUR Nazioarteko Turismo Azokan parte hartzen dago, gure eskualdeko eskaintza turistikoa ezagutzera ematen. Eguaztenean hasi eta domekara bitartean iraungo du turismo arloko ekimenak. Bertan dago Patxi Lejardi Euskara eta Jaie-tako zinegotzi eibartarra, Eibarko Udaleko ordezkari gisa. Berak esan digunez, "FITUR erakusleihu izugarria da gure herriko eta eskualde-

ko eskaintza turistikoa ezagutzera emateko, eta, aldi berean, guk ere besteengandik ikasteko. Bisitariari azaltzen diegu Debarreneko ondarea oso zabala dela eta gauza asko daudela ezagutzeko (ondare kulturala, industrial, gastronomia, Geoparkea...). Bisitarien egonaldiak esporadikoak izan beharreen, gure eskualdean egun gehiago gelditze-ko arrazoi asko daudela adierazi nahi diegu".

Andretxeak datozen hilabeteetarako ikastaroen eskaintza aurkeztu du

Andretxeak 2024ko lehen seihilekorako tailer eta ikastaroen programazioa aurkeztu du. Jon Iraola alkateak eta Patricia Arrizabalaga Berdintasun zinegotziak Andretxean, Isasi kaleko bere egoitzan, eskainiko diren tailer eta ikastaroen programazioa aurkeztu zuten aurreko astean. Jarduerak gune feminista batean egiten dira, eta hausnarketaren eta parte-hartzearen

ren bidez herritar guztiak berdintasunean trebatzea dute helburu. Nabarmentzeko da Eibarko Jabetze Eskolak bere ikastaro eta tailerren eskaintza asko zabaldu duela eta udaberrirako ikastaro zerrenda luzea osatu dutela. Ikastaroetan izena emateko epea otsailaren 1etik 25era (bi egunak barne) egongo da zabalik. Informazio gehiagorako Andretxeara jo dezakezue.

Amañako Jai Batzordearen zozketan zenbaki saritua 7.311 izan da

Urtarrilaren 14ko ONCEko zozketaren lehen zenbakiarekin bat zetorren boletoaren jabeak irabazi zuen Amañako Jai Batzordeak jaiei begira egindako orain arteko azken saria. Egun horretako zenbaki saritua 7.311 izan zen eta, Josean Alberdi "Goma" Amañako Jai Batzordeko ordezkariak dioenez, berak saldutakoa da "Untzagan, T. Etxebarria kalearen hasieran, kokatuta egoten naizen txokoan". Jai Batzordekoek irabazlea agertzeko irrikitan daude, "saria banatzeko".



Saratsuegiko skate-park berria ikusten egon dira

Marta Pastor Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendaria Saratsuegin egon zen atzo goizean, bertako skate parkean egindako lanetan egindako inbertsioei buruz berbetan. Pastorren berbetan, Aldundiak 80.000 euro inbertitu zituen eta, Jon Iraola Eibarko alkatearen berbetan, "laguntza handia izan zen 250.000 euro inguru balio izan zuen obran". Horrela, herriko skaterren eskakizunak jarraituta eta eurekin elkarlanean, pista berria eraiki zuten orain dela hainbat hilabete.



Euskararen Baloia ekimenaren edizio berria abiatu da Ipuruan

Eibarko eta inguruko herrietako ikasleen artean euskararen erabile-
ra sustatzeko SD Eibar Fundazioak
bultzatutako Euskararen Baloia
ekimenaren edizio berria abiatu
da aste honetan Ipuruan. Elgoi-
barko Ikastolako LH 3. mailako
ikasleak bertan izan ziren eguazte-
nean, instalazioak bertatik bertara
ezagutzen eta, ondoren, ikasleek
egindako proiektua, euskara gehi-
go erabiltzera animatzeko kantua,
aurkeztu zuten haurrek. Ekitaldian
Mikel Larrañaga SD Eibar Fun-
dazioko lehendakariordea, Esti-
baliz Alkorta Eusko Jaurlaritzako
Euskara Sustatzeko zuzendaria eta
Joseba Etxeberria eta Yeraí Mar-

tin entrenatzaileak egon ziren, eta
denek elkarrekin kantatu eta gero,
ikasleek bi entrenatzaileei galderak
egiteko aukera izan zuten.

Euskararen Baloia izeneko eki-
mena 2019an sortu zen, eta aurten
laugarren edizioa beteko du. Abiatu
berri den 2024ko edizioa Eibar, Er-
mua, Elgoibar eta Mallabiko ikaste-
txeentzat zabalik dago. Orain arte,
Eibarko eta Ermuko hamar ikaste-
txetako mila ikasle inguruk parte
hartu dute programa honetan. Aur-
tengo edizioaren berritasun nagu-
sia ikastetxeen artean lehiaketa bat
antolatzea da. Ikastetxe bakoitzak
"Euskara eta kirola" gaiari buruzko
proiektu bat aurkeztu beharko du,

aukeratzen duten modalitate artis-
tikoan (antzerkia, abestia, dantza,
ipuin kontaketa...), gehienez ere
bost minutuz. Epaimahai batek
originaltasuna, mezua, talde-la-
na eta Eibarren balioekiko lotura
balaratuko ditu sariak emateko.

Lehen saria Atxabalperi bisita
egitea da, taldearen autobu-
sean, Pantxikarekin, gizonetako
lehen taldearen entrenamendu
bat ikusteko eta taldeko jokalarie-
kin norgehiagoka bat izateko. Eta,
bigarren saria, armagineen lehen
taldeetako jokalariz guztiek sina-
tutako baloia da. Gainera, parte
hartzeko ikastetxe guztiek
Ipurua bisita bat izango dute,
Eibarren kamiseta bat zozketatuko
dute bisita bakoitzean, Euskararen
Baloia ale bat eta Eibar FTko
gizonetako eta emakumetako
lehen taldeen partidetara joateko
gonbidapenak.

LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEIHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Entzarguak etxera

PUBLI RESA
ofiziala publicitario

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 457 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea



Lanbide Heziketako bi mila ikaslek hartuko dute parte egueneko Ikasentzako Azokan

Eibarrek XIII. Ikasentzako Azoka hartuko du datorren asteko egunean (otsailak 1). Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, Euskadi osotik etorritako Lanbide Heziketako ikasleek, bi mila neska-mutil inguruk hartuko dute parte Untzaga plazan eta Txaltxa-Zelaian egongo den azokan, eta bertan erakutsi eta salduko dituzte beraien produktuak, 10:00etatik 13:00era. Guztira 400 ikasentzako erakutsiko dituzte beraien produktuak, goiz osoan zehar. Azoka Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpe dagoen Tknikak (Euskadiko LHko Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatu Zentroa) antolatzen du, Eibarko Udalaren eta Eibarko Oinarritzko LHko "ikasentzako" laguntzarekin.

Enpresa txiki bat sortzea eta abian jartzea da Ikasentzako Euskadiko Lanbide Heziketa-

ko erdi-mailako eta goi-mailako ikasleei planteatzen dien erronka. Euskadiko LHko eredu metodologikoaren barruan lan egiten da, eta eredu horretan funtsezkoa da irakasle-taldearen lankidetzalana. Bestalde, enpresa-simulazioa bada ere, eskaintzen den produktua edo zerbitzua benetakoa denez, irakasleen lankidetzalana horrek negozio-ideiak lanbide-arloarekin lotuta egotea, berritzaileak izatea eta zikloko irakasle-talde osoa inplikaturik egotea ahalbidetzen du. Negozio-ideiak aztertzen ari diren lanbide-arloekin lotuta daude, eta pertsonen edo haien ingurunearen bizi-kalitatea hobetzera eta iraunkortasuna kontuan hartzea bideratuta egon behar dute.

Produktuak eta zerbitzuak askotarikoak izaten dira eta ikasleen proiektu gehienak Kirol eta jardueren fisikoaren arloan garatzen dira.



Eibarko Baso Biziak elkartearekin zuhaitzak landatzeko gonbidapena

Eibarko Baso Biziak elkartearen eskutik, domekan zuhaitz-landaketa egingo da, eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi dituzte. Landaketa Eibarko Baso Biziak elkartearen lursailetan izango da, Haritzbakarraga mendiko inguruetan, eta bertara joateko 10:00etan elkartuko dira, Saratsuegiko (Sautsiko) parkean. Animatuz gero, e-maila idatzi dezakezue eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera, izen-abizenak, adina eta harremanetan jartzeko telefono zenbakia zehaztuta.



Azken Ostiraleko kontzentrazioa

Urteko lehen mobilizazioa antolatu du Eibarko Sarek. Gaur hileko azken barixakua izanda, Azken Ostirala elkarretaratzea egingo da Untzagan, 19:30ean. Bertan parte hartzeko deia egon dute.



Palestinako herritarren kontrako erasoak behin betiko amaitzeko eskaera

Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek antolatuta, zapatuan Palestina askatzea eskatzeko manifestazio jendetsua egin zen Eibarren, beste hiri askotan bezala. Horrekin batera, gertatzen ari den sarraskia gogor gaitzetsi dute antolatzaileek: “Guretzat konponbidea nazioarteko herri-presioan dago, ez dugu nahi gerra gehiago gure diruarekin ordaintzea, eta gure agintariei Israelgo estatu genozidarekin harremanak apurtzeko eskatzen diegu. Zergatik Eibarko Udalak ez du oraindik Palestinako bandera jarri udaletxean, Ukrainiako banderarekin egin zuen bezala?”. Antolatzen dituzten ekitaldien berri izan nahi duenak QR kode hau eskaneatu dezakeela adierazi dute.



Visesak alokairurako eta babes ofizialeko 36 etxebizitza egingo ditu Egazelain

Visesak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren sozietate publikoak, babes ofizialeko 36 etxebizitza eraikiko ditu Egazelaiko R-2 lurzatian. 10.325.669,83 euroko inbertsioa aurreikusi dute etxebizitzaren sustapenerako eta obrak 2026ko bigarren hiruhilekorako amaitzea aurreikusi dute. Etxebizitzaren osakerari dagokienez, logela bateko 2 etxebizitza izango dira; 2 logelako 10 etxebizitza, haietako bi

mugikortasun urriko pertsonentzat egokituak; eta 3 logelako 24 etxebizitza. Guztiek kanpo-espazioak (terrazak edota balkoiak) eta atxikitako garajea izango dituzte. Energiaren ikuspegitik, A kalifikazio gorenekoak izango dira. Etxebizitzak eraiki ondoren, Alokabide sozietate publikoak kudeatuko ditu; etxebizitzak Etxebiden izena emanda dauden eskatzaileen artean alokairu sozialera bideratuko dira.

FUNEUSKADI
Single business

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

FUNERARIA MUGICA

TANATORIO EIBAR

TANATORIO EGAZELAIN

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xikillon, s/n. SIGMA Industriaidea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalese · Santurtzi · Basauri · Galdakao

EIBARKO HEZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

HO E

ESKOLA OFIZIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

943 899275
eoieibarheo@gmail.com

Otsailaren 1etik 7ra (13:00ak arte)

MATRIKULA LIBREA

BERRITASUNA!!

ENGLISH EUSKARA DEUTSCH FRANÇAIS

Argibide gehiago:
www.eoieibarheo.hezkuntza.net

39,18 €

EUSKARA C1 MAILA

Eztarriko gaitzetatik babesteko sendagai goxoa

Euskal Herriko toki askotan San Blas opilak egin eta jateko ohitura oso hedatuta egon arren, Eibar da jai hori ospatzeko ohitura sustraituena eta luzeena daukan herrietako bat, eta San Blas opilen tradizioari ederki eutsi zaio gure herrian. Eibartarrok ondo dakigun bezala, datozen egunetan, San Blas eguna gerturatzen joan ahala, herri osoan anis usaina izango da nagusi aurten ere..



Pertsonak zein animaliak sendatzeko zeukan dohaiari esker, Sebasteko Blas santu bihurtu zela dio tradizio kristauak. Diotenez, eztarrian arrain hezur bat trabatuta, itolarrian zegoen ume bati bizitza salbatu zion, eta hori dela-eta, haren aldeko gurtza laster zabaldu zen eliza osoan. Euskal Herri osoan San Blas laguntza eskatzeko ohitura dago, eztarriko minak kentzeko batez ere, otsailaren 3an, santu horren omenezko egunean. Herriaren arabera, opilak ez ezik, lepoan lotuta eramateko sokak ere bedeinkatzen dira.

Eibarren ere, otsailaren 3an herriko eliza guztietara eramaten dira San Blas opilak, bedeinkatzera, zapi batez estalita. 1993an Ego Ibarra batzordeak argitara eman zuen Juan San Martinen "Antzinako Eibar" liburuan kontatzen da ohitura honi buruz zaharregandik jasotakoa. Horren arabera, badirudi antzina Santa Ines ermitan gordetzen zela San Blasen irudia, eta hara joaten zirela opilak bedeinkatzera. San Martinen berbetan, "gera aurretik ezagutu nuen Santa Ines ermita, Isasiko jauregiaren baratz gurenean (baratzak zuen hesiaren kanpokaldetik), jauregi honen eta Kaskarregua baserriaren bitartean, baina ordurako ez zen egi-ten han ezertariko elizkizunik. Ohitura San Andres parrokiara igarota zen eta hona joaten ginen, opillak ez ezik, naranjak ere eramaten genituen".



San Blas opilak nola egin pausoz pauso

Azken urteotan Edurne Zenarruzabeitia aritzen da San Blas opilak nola egin azaltzen, Arrate Kultur Elkarteak antolatutako ikastaroan. Iaz berak eman zigun **errezeta sei pausotan** laburbildu dizuegu. Eta, nahiago baduzue, **bideoan** ikus dezakezue gure YouTube kanalean.

OSAGAIAK (6 opil egiteko)

- Dozena bat arrautza (hortik hiru zuringo hartu)
- Irina: 2 kg
- Azukrea: 750 g
- Legamia: sobre bat
- Koipea edo gurina: 150 g
- Anis esentzia: hodi bat

Bideoa ikusteko eskaneatu:



1.- Osagaiak ondo nahastu eta oratu katilu batean. Irina pixkanaka joan botatzen eta, pixka bat gogorra dagoenean, estalki edo mahai gainean irina ipini eta nahasketa bertan bota.



2.- Masa egin, eskuekin ondo nahastuz. Irina gehitzen joan, masak eskatzen duenaren arabera. Masa estalkian, mahaiain edo eskuetan pegatzen ez denean, ondo egongo da.



3.- Masa sei zatitan banatu eta forma eman. Forma emateko, irina bota eta botila edo arrabolarekin masa zabaldu.



4.- Bi opil laban sartzeko prest daudenean, laba berotzen jarri (180°) eta, bitartean, blanketa egin. Horretarako, hiru zuringoak elur-punturaino irabiatu. Azukre-hautsa bota eta 10 minutuz irabiatu.



5.- Laba bero dagoenean (180°-190°), forma duten masa zatiak sartu 20 minutuz. Laba guztiak berdinak ez direnez, begiratzen joan behar da eta, zure gustura txigortzen denean, atera.



6.- Labatik ateratzerakoan, opilak estalki edo mahaiaren gainean jarri, eta hoztu baino lehen gainean zuria jarri, koilararen atzeko aldearekin. Ondoren, lehortzen laga ordu batzuetan (arratsaldean eginez gero, hurrengo eguneko goizera arte).



ISASI
OKINDEGIA

- Elgetako bidea 9
943 70 07 77

DENDAK

- Ego-Gain, 2
943 20 23 40

- Zabaleta
Bidebarrieta, 10
943 20 02 25



ITXESI

BIDEBARRIETA, 6 Tel. 943 203219



Sanblas tradizionalak, integralak eta gluten gabekoak

Zazpi aste antzerki onenarekin

Otsailarekin batera, badatoz Antzerki Jardunaldiak. 43. edizioa izango da aurtengoa eta martitzenean eman zuten jakitera aurtengo edizioaren programa. 25 antzezlan izango ditugu ikusgai otsailaren 15etik martxoaren 21era arte, horietako zortzi euskaraz. Ikuskizun gehienak Coliseo antzokian egingo dira, lau Hezkuntza Esparruan eta kalean ere izango dugu antzerkiak gozatzeko aukera.

Informazio gehiago:



Otsailaren 14an, Irene Hernando eibartarrak Anabel Alonso aktorearekin izango duen solasaldia-ekin emango zaie hasiera Eibarko Antzerki Jardunaldiei. Jose Luis Gonzalez Udaleko Kultura zuzendariak martitzen goizeko aurkezpenean esan zuen bezala, erresilientzia izango da solasaldiaren ardatza: “Alonsok aktore eta emakume bezala izan duen erresilientzia izango dute mintzagai. Bere ibilbidearen errepasoa egiteaz gain, interpretazioaren munduko gorabeherei nola aurre egin dien ikusiko dugu”.

Hurrengo egunean, otsailaren 15ean, ‘La celestina’ antzezlan eskainiko dute Coliseo antzokian, Anabel Alonso bera protagonista izango delarik. Gonzalezen berbetan, “klasiko honen bertsio onenetakoa da hau. Oso ikuskizun borobila”.

25 antzezlan

Hurrengo antzezlan otsailaren 17an izango dugu ikusgai,

17:00etan, Coliseon. Hurrei zuzenduriko ‘Andereño’ ikuskizuna ekarriko du Anita Maravillas taldeak. “Objektuen antzerkian, istorioak kontaktzen eta txotxongiloekin maisuak dira”, Gonzalezen ustez.

Antzerkia eta dantza garaikidea uztartzen dituen ‘Tombola’ ikuskizuna izango da hurrengo jardunaldietan, otsailaren 18an, 19:00etan, Coliseon. Saray Garzia eibartarra da ikuskizunaren antzezleetakoa bat eta hori da, hain zuzen ere, jardunaldi hauen ardatzetako bat. “Eibartarren edo Debabarrena eskualdeko bizilagunen partaidetza duten ikuskizunak ekartzen saiatzen gara”, Gonzalezek azaldu zuenez.

Aurpegi ezagun bat izango dugu hurrengo antzezlanean: Lolita Flores. Bere ama Lola Flores proposatu eta egin ahal ezin izan zuen antzezlan ekarriko du gurera otsailaren 19an (19:00etan, Coliseon). Lolita Bernarda Albaren neskame Ponciaren azalean sartzen



Golden Apple Quartet taldeko kideak egon ziren martitzeneko aurkezpenean. EKHI BELAR

da ikuskizun horretan eta, Gonzalezen ustez, “zoragarri dago”.

Talentu berriari tokia egin eta berau bultzatu nahian, Ramon Bareak zuzentzen duen Pabellon 6 Gazte Konpainiaren ‘Días estupendos’ antzezlan eskainiko dute otsailaren 21ean, 19:00etan. Alfredo Sanzolen lana da hau eta Euskal Herrian ditugun artista gazteei aukera eman nahi zaie horren bitartez.

Beste izen handi bat izango dugu hurrengo ikuskizunean, Carmelo Gomez aktorea izango baitugu gurean, Miguel Hermosorekin, otsailaren 23an. Miguel Delibesen izen bereko eleberrian oinarritutako ‘La guerra de nuestros antepasados’ ekarriko dute gurera eta, Gonzalezek azpimarratu zuenez, “Gomezek gizona aktore batek azken urteetan egin duen antzezpene onetakoa egiten du bertan”.

Beste eibartar bat izango dugu hurrengo saioan, zuzendari bezala kasu honetan. Kantabrian bizi den Anabel Diezek ‘El jardin de

las posibilidades’ eskainiko du bere jaioterrian otsailaren 24an, Emilia Llanos Federico Garcia Lorcaren lagunaren begirada ekarriz.

Demode Quartet taldeak ‘Gurpil gainean’ ikuskizuna eramango du herriko kaleetara otsailaren 24an, 12:30ean eta 19:30ean. Horrela, bere kuartizikloarekin Errebaleetik Untzaga plazara joango dira eta bidean parodiak eta abestiak eskainiko dituzte a *capella*.

Euskarazko antzerkia izango dugu ondoren, otsailaren 27an. ‘Esnearen kolorekoa’ ikuskizuna aurkeztuko du Tanttaka antzerki-taldeak, goi-mailako izenekin: Joseba Apaolaza, Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia, Jon Olivares eta Jose Ramon Sorroiz. Zuzendaria, bestalde, Fernando Bernues da.

Agurrak ere izango ditugu Antzerki Jardunaldietan. Martitzeneko aurkezpenean berezkoa duten gaitasuna erakutsi duten Golden Apple Quartet taldekoek agur esan-

**>>> 25 antzezlan
izango ditugu
Antzerki Jardunaldien
43. edizioan,
horietako zortzi
euskaraz**



Gazteak antzerkira erakartzeko ahalegina egingo dute 'Bihar arte soilik' antzezlanarekin. ERRE PRODUKZIOAK

>>> Anabel Alonsok emango die hasiera jardunaldiei Irene Hernando eibartarrarekin izango duen solasaldiarekin

go diote hainbat hamarkadako ibilbideari '¡Vamos, que nos vamos!' ikuskizunarekin, martxoaren 1ean. "Agur-birak oso hunkigarria dihardu izaten eta agur esateko kostatzen ari zaigu", aitortu zuten martitzenean taldeko kideek. Euren abestirik ezagunenak ez dira faltako eta, nola ez, umorez jantziko dute saioa.

Beste klasiko bat izango dugu martxoaren 2an: Edipo. Zaragozako 'El temple' taldea izango dugu gurean, baina baldintza bat ezarri zuten hona etortzeko: herriko abesbatza batek euren ikuskizunean parte hartzea. Beraz, Sostoa abesbatza igoko da eurekin eszenatoki gainera. "Bi hilabete daramatzate elkarrekin entseatzen", Gonzalezek esan zuenez.

'Lehendakarigaia' antzezlanarekin arrakasta izan ondoren, berriro elkartu dira Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga. Oraingo honetan 'Almazenean' komedia ekarriko digute, martxoaren 4an, Hezkuntza Esparrura. Bertan, jubilatze

dagoen arduradunak eta bere lanpostuan ordezkatu duenak bost egunez lantokia partekatuko dute, ezinbestean, itxuraz ezer gertatzen ez den almazan huts batean.

Eulalia Abaitua argazkilariaren historia eskainiko dute, martxoaren 7an, interpretazioa, irudia (Eulalia Abaituaren argazkiak) eta musika (Liher taldeko Lide Hernandoren eskutik) uztartuz. "Abaitua emakume aitzindaria izan zen, Euskal Herriko lehen emakume argazkilarietako bat. Berari esker Euskal Herriaren memoria bisuala dugu", Gonzalezek hitzetan. 'Mira hadi' 19:00etan hasiko da eta euskarazko saioa izango da.

Euskarazko antzezlanekin jarraituz eta publiko gaztea erakarri nahian, 'Bihar arte soilik' antzezlanarekin emango dute martxoaren 9an, 19:00etan. Go!azen bezalako saioetan ibili diren aktoreak dira protagonista eta gazteekin konektatzeko antzezlanarekin daitekeela aipatu zuten Gonzalezek.

>>> Bihar jarriko dituzte sarrerak salgai, Coliseo antzoko leihatilan eta Internet bitartez



Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga izango dira jardunaldietan. TXALO

Hitz barik, mundu guztia barrezka jartzeko proposamena izango da hurrengoa: N'importe quoi. "Gaur egungo clown ikuskizun onenetakoa da", Kultura zuzendariaren ustez. Martxoaren 10ean egongo da ikusgai, 19:00etan.

A Coruñaiko 'Chevere' antzerki taldeak 'Proyecto Helen Keller' ikuskizuna ekarriko du martxoaren 11n Coliseora. "Antzerki konprometitua egiten dute, salaketa kutsuarekin. Agian, ikuskizuna ikusten duzun bitartean ez zara konturatzen, baina amildegia ertzean jartzen zaituzte gai batzuren inguruan hausnartzeko", adierazi zuen Gonzalezek.

Eibarren hainbatetan aritu den Rafael Alvarez 'El Brujo' aktoreak 'El viaje del monstruo fiero' antzezlan eskainiko du martxoaren 14an. Lope de Vegaren loa baten bidez hainbat memoria deklamatuko ditu 'El Brujo'-k. "Hipnotizatu egiten du, horregatik esaten diote 'El Brujo'", esan zuen Gonzalezek.

Proposamen berezia hurrengoa. Zinearen mundua eta antzerkien zuzenekoak uztartzen dituen 'La sed del minotauro' eskainiko du Khea Ziater konpainiak martxoaren 15ean, Alex Gerediagak zuzenduta.

Antzerki amateurak beti izaten du tokia Antzerki Jardunaldietan eta oraingoan Banarte Antzerki Tailerrak Mikel Areitioaurtena ermuarrak zuzenduriko 'Aqui no paga nadie' eskainiko du martxoaren 17an, 19:00etan, Hezkuntza Esparruan.

Maria Goiricelaya dramaturgo handiak 'Nevenka' ikuskizuna ekarriko du martxoaren 18an Coliseora. Bertan, Nevenka Fernandezek historia kontatuko da. Berak Ponferradako zinegotzi zela, alkatea akusatuen aulkian ezarri zuen jazarpen sexuala egotzita eta kasua irabazi zuen. Ostera, publikoki estigmatizatua izan zen.

Vaiven antzerki konpainiak 'Mastundoen patioa' eskainiko du martxoaren 19an, zaintzen gaia

lantzen duen ikuskizuna. "Umorea eta tragedia uztartzen ditu Vaivenek, berak bakarrik dakien bezala", Gonzalezen ustez.

Antzezlanekin amaitzeko eta Korrika urtea izanik, 'Badon' ikuskizuna eskainiko dute martxoaren 21ean, Korrika Kulturalaren barruan. Horrela definitu zuen Gonzalezek: "Antzerki sentsoriala, monologoak, musika... opera post-modernoa esaten diote batzuek. Okena antzerkia ikustea da eta bakoitzak bere iritzia sor dezala".

Sarrerak bihartik aurrera

Sarrerak aurrez aurre erosteko, gaur arte hitzordua eskatu behar da eta bihar, etzi eta etzi damu Coliseo antzokian eskuratu ahal izango dira. Gero, urtarrilaren 29tik aurrera, astelehen eta barriakuetan erosi ahal izango dira Coliseon, 17:30etik 19:30era. Sarrerak online erosi nahi izanez gero, bihartik aurrera egongo dira salgai baita ere.

Zure odola ezinbestekoa da

Artikulu honen titularrean agertzen diren berbak sarri erabiltzen ditu Euskadiko Odol Emaileen elkarteak. Odol falta dago eta guk dugu horretarako konponbidea. Prozesua oso erraza da: odola ematera joan, etzan edo eseri, besoa eman, minutu gutxitan odola atera eta kitto. Prozesu erraza eta laburra, askorentzat berebiziko laguntza izan daitekeena.



Odol erreserbak minimoetan daude. Urtarrila data txarra izaten da normalean, donazioek behera egiten dutelako Gabonetan eta abar, baina Lucia Simon Eibarko Odol Emaileen Elkarteko arduradunetako batek esan digunez, “azken aldian beti dira data txarrak odola emateko”. Baina zergatik dira hauek hain data txarrak? “Gabonetan emari gutxiago dago, auto-istripu gehiago dago eta odol eskaria handitzen da, jendea gehiago gaixotzen da eta ezin du odolik eman...”, Simonen berbetan.

Lucia Jose Maria Lupeñaren emaztea da, eta orain dela urte batzuetatik hona senarrarekin batera Eibar-ko elkartearen gidaritza darama. Lupeñak hamarkada asko egin ditu herriko odol-emariak antolatzen eta bien arteko kontua da gaur egun. Ondo ezagutzen dute odol-donazioek herrian izan duten bilakaera eta, Luciak esan digunez, “beherako joera dago hemen, baina ez hemen bakarrik, beste herrietan ere antzeko joera dago. Euskadiko odol-emaileen elkarteekin egin genuen iazko batzarraren jakinarazi zutenez, odol-ateratzeen kopurua asko jaitsi da”. Simonek gogoratzen duenez, “orain dela urte gutxi 900etik gora odol-emari izaten genituen urtero Eibarren, eta gaur egun 700 baino zertxobait gehiago izaten dira”. Eta zera gehitzen du Lupeñak: “Lehen mila odol-emari inguru izaten genituen herrian”.



Jose Maria Lupeñak eta Lucia Simonek daramatzate Eibarko Odol Emaileen Elkartearen ardura. EKHI BELAR

Gaur egun, 444 odol-emaile ditugu Eibarren. “30 odol-emaile gehiago beharko genituzke zerbaki egokietara iristeko”, Simonek esan digunez. “Dena dela, zentzu horretan, hobe da emaileen fideltasuna, kantitate handia izatea baino”.

Gizartean aldaketak


Zer gertatu da ba, odol-emaileen kopurua jaisteko? Luciaren ustez, “jende nagusia erretiratzeko joan da eta jende gaztea animatu da, bai, baina ez du fideltasun berbera: batzuk kanpora doazelako, beste batzuk piercingak eta tatuajeak egiten dituztelako (horrelako zerbait eginez gero, denbora bat itxaron behar da odola eman aurretik eta kasu batzuetan, gorputza tatuajez beteta izanez gero, agian ezin da eman)... Horrela, odol-emaile kopurua hain baxua ez den arren, ez dute jarraikortasunik edukitzen eta horregatik odol-emarien kopurua nahiko baxua da. Batzuk erregularitasunez etortzen dira, oso ondo ezagutzen dituzte odol-ateratzeen datak eta abar, baina beste batzuek, aipatutako arrazoiengatik, ez dute erregularitasun hori”.

Gizartea aldatu egin den bezala, odol-emaileen funtzionamendua ere aldatu egin da. Orain Untzagako jubilatu etxean egiten dituzte odol-ateratzeak, hilean birritan, eguen arratsaldetan. Sare sozialen bitartez odol-ateratzeen berri ematen dute eta noizbait odola eman dutenei SMS mezua bidaltzen diete odola eman dezaketela gogoratzeko. Lehen, ostera, Pagei kalean egiten zituzten odol-ateratzeak eta banan-banan odol-emaileei deitzen zieten odol-ateratzeen berri emateko. Hain zuzen ere, Lupeña arduratzen zen dei horietaz eta, harreman zuzena iza-

**Gaur egun, 444
odol-emaile ditugu
Eibarren. 30 gehiago
beharko lirateke
kopuru egokietara
iristeko**



Odola emateko 943 00 78 88 telefonora deitu behar da zita hartzeko, 08:30etik 13:30era



Hauek dira Euskadin genituen odol-erreserbak urtarrilaren 22an.
EUSKADIKO ODOL EMAILEAK

nik, odol-emaile kopuru polita izatea lortzen zuen. “Martitzen iluntzean hasi eta eguaztenera arte 150 dei inguru egiten nituen”, gogoratzen du.

Urte guztian zehar, gizonezkoek lau aldiz eman dezakete odola eta emakumezkoek hiru aldiz. Odol-ateratze batetik bestera bi hilabete inguru pasa behar dira eta, Lupeñak esan digunaren arabera, “odola emateko beharra badago eta, baldintzak betez gero, epea laburragoa izan daiteke”. Odola ateratzen egoten diren osasun langileak arduratzen dira dena kontrol-pean eramateaz eta sistematizatuta dute nork noiz eman duen odola eta abar, “beraz, eurak esango dizute odola eman dezakezun, gehiago itxaron behar duzun edo dena delakoa”, gehitzen du Jose Mariak.

Eguenetan, hilean bi aldiz

Esan bezala, hilean birritan eman daiteke odola Eibarren eta hauek izango dira aurtengo odol-ateratzeen datak: otsailak 8 eta 22, martxoak 7 eta 21, apirilak 11 eta 25, maiatzak 9 eta 23, ekainak 13 eta 27, uztailak 18, abuztuak 22, irailak 12 eta 26, urriak 10 eta 26, azaroak 14 eta 28, eta abenduak 12 eta 26.

Odola emateko jarraitu behar den prozesua oso erraza da. “Lehenik, 943 00 78 88 telefonora deitu behar da zita hartzeko, 08:30etik 13:30era. Bigarrenik, egunean, zita hartutako orduan, Untzagako jubilatutako egokitutako gunera joan behar da eta erizainak hartzen zaitu. Berak tentsioa eta hemoglobina neurtzen dizkizu, eta sendagilearengana pasatzen zara. Horrek galdera batzuk egiten dizkizu odola emateko gai zaren edo ez jakiteko eta, gai bazara, odola ematera pasatzen zara. Besaulkian jarri edo etzan egiten zara, norberarentzat erosoena dena, eta odola ateratzen dizute. Minutu gutxiko prozesua izaten da, pertsona bakoitzaren arabera. Eta amaitzeko, jatekoa eta edatekoa ematen dugu, odola eman eta gero minutu batzuk bertan gelditzea komenigarria delako”, azaldu digu Simonek. “Zalantzak edo beldurrak dituztenak lasai egon daitezke, osasun langileak egoten direlako bertan eta zainduta egoten zaretelako”, azpimarratzen du Lupeñak. “Gainera, minutu gutxitan egindako ekintza hori oso lagungarria izan daiteke odol horren beharra duen norbaitentzat”, diote biek.



Herriari kolorea ematen dio kuadrillen kalejirak. EIBARKO UDALA

Aratosteei hasiera emango zaie datorren asteko asteburuan

Aurten nahiko goiz iritsiko zaizkigu Aratosteak. Otsailaren 8an izango da Eguen Zuri, baina aurretik hasiko dira herria mozarrotzen, hilaren 3an Kezka Dantza Taldekoek Koko Dantzak egingo baitituzte herriko baserrietan zehar. Hori izan ohi da Aratosteei hasiera ematen dien ekintza eta aurten ere horrela izango da.

Kezkakoek Aratosteen lehen txinparta piztu aurretik, gaur ezagutuko dugu zein izango den aurtengo Aratosteetako kartel ofiziala, epaimahaia gaur elkartuko delako eta gero emango dutelako erabakia. Irabazleak, bere kartelak herriarentzat hain garrantzitsuak diren jai hauek janzteaz gain, 1.000 euro eramango ditu poltsikora.

Sari nagusiaz gain, beste bi sari egongo dira, bata 11 eta 14 urte bitartekoentzat, eta bestea 10 urte artekoentzat. Hauek sari berezia jasoko dute, baina dirurik ez.

Kezka Dantza Taldea otsailaren 3an ibiliko da baseritik baserrira Koko Dantzak eskaintzen

Esan bezala, jaiak otsailaren 8an egingo du eztanda Eguen Zuri egunarekin. Egun horretan, ohikoa denez, herriko eskoletako ikasleek kalejirak eta saio bereziak eskainiko dituzte eta, gero, dantza egiteko aukera izango dute.

Hurrengo egunean Kaldereroen txanda iritsiko da, iluntzean egin ohi duten kalejirarekin, eta zapatua egun handia izaten da herrian. Azken urteetan demaseko arrakasta izaten diharduen kuadrillen kalejirak herria kolorez jantziko du eguerditik aurrera eta, gainera, mozorro onenek saria eramango dute dezakete. Beraz, jai giroa sustatzeaz gain, opari ederra eraman dezakete etxera kuadrillek.

Kuadrillen kalejiraren lehia-ketan parte hartzeko epea urtarilaren 29an zabalduko dute eta otsailaren 8an amaituko da. Izena emateko, Eibarko Udalaren web orrialdean aurkitu ahal izango den formularioa bete besterik ez da behar izango.

Herritarrak bakarrik ez, tabernak ere mozarrotu egiten dira egun hauetan. Hori sustatzeko, Aratosteetan ondoen apaindutako taberna aukeratzeko lehiaketa ipini du martxan Udalak Eibarko ostalaritza-establezimenduentzat. Kuadrillen kalejirarekin gertatzen den bezala, izena emateko epea hilaren 29an irekiko dute eta otsailaren 8an itxi, eta Udalaren webgunearen bitartez egin beharko da. Oraindik lehiaketaren oinarriak eta sariak jakitera eman ez duten arren, hiru sari banatu izan dituzte aurreko edizioetan: sari bat 'txispa' gehien duen tabernarentzat; beste bat tabernarien koko-jantzi onenari; eta sari nagusia taberna onenari.

Bi aste eskas dituzue, beraz, hemen jasotakoa aintzat hartu eta Aratosteetarako prestatzeko.

Neguko hotzari aurre eginez

Etxeetan egiten dugun energia-gastuaren %47 hotzari aurre egiteko erabiltzen den berogailu sistemari dagokio, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuaren (EDAI) arabera. Horri gehitzen badiogu etxebizitzaren %17 baino ez dela energia-iturri berriztagarriez elikatzen, horrek izugarritzko eragina du ingurumenean. Nola saihestu hotza etxean modu iraunkorren?

Berogailua kontrolatu: temperatura eta piztuta dagoen denbora doitu

Badira modu iraunkorren funtzionatzen duten berokuntza-sistemak ere, hala nola lurzorur erradiatzailea edo aerotermia, baina badira zenbait neurri etxean hotzari aurre egiteko, kontuan hartu gabe zer berokuntza-mota dagoen. Lehenik, termostatoaren temperatura doitu behar da, eguneko unearen arabera. EDAIren arabera, eguneko temperatura optimoa 19-21°C bitartekoa da; gauez, berriz, 15-17°C-raino jaisatea gomendatzen da, edo, bestela, berogailua itzaltzea etxeak isolamendu ona badu.

EDAIren arabera, gure beste aliatuetako bat termostatoa da, berokuntzaren kontsumoa kontrolatzeko oso lagungarria dena.



Zoru, leiho eta ateen isolamendua indartu

Etxe bateko hotza nola murriztu jakiteko, eraikuntza iraunkorreko programek eraikinen behar termikoei eustea dute helburu, isolamendu termikoa eta berokuntza-instalazioak hobetuta. Keinu errazekin alderdi hori hobetu daiteke.

Ohartu gabe beroak zirrikitu, leiho eta ateetatik ihes egiten du. Nola egin aurre hotzari, leihoak eta atea babestuz? Ateetan zinta itsasgarria edo burletak erabil ditzakegu. Lurrari dagokionez, alfonbrak lagun onak

TAILERRA:
J.A. Gisasola, 4 AC

CLIMALITEkin isolatzaile onena lortuko duzu akristalamendu bikoitzaz

ACHA Kristaldegia

eta faxa: 943 20 39 03 info@crystaleriaacha.com

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

Bidebarrieta, 28 Tel./Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

IZARRAITZ LEIHOAK

PVC leihoak, aluminiozkoak eta mixtoak
Mantentze-lanak / Era guztietako konponketak
Pertsianak / Manparak / ...

Bidebarrieta, 48
Tel. 943 256 026 ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com

ARRIAGA SANEAMENDUAK

Saneamendua - Ur hotza eta beroa
Gasa - Kalefakzioa
Bainugelen erakusketa

943202034 - Arragueta, 2 bis A adm.arriagu@gmail.com

dira etxeko hotzari aurre egiteko, oso energia-eroale txarrak baitira eta hesi termiko gisa funtzionatzen baitute (batez ere terrazozko solairuetan).

Kanpoko hormak zaindu eta ‘forratu’

Etxebizitzaren isolamendu termikoa indartzeko, kanpoko hormak estal daitezke: liburu-apalak (paperak hotzari aurre egiten dio), koadroak eta baita kortxozko horma-irudiak ere. Material isolatzailezko pantaila bat ere jar dezakegu erradiadoreen atzean,

Ez jarri oztoporik eguzki-argiari

Ondo ireki pertsianak eta gortinak, eguneko orduetan hotzari aurre egiteko, eta itxi gauetz, gelak isolatzeko. Horrek berotzen lagunduko du.

Ateak eta leihoak itxi

Aireztatzea beharrezkoa den arren, funtsezkoa da gelak itxita edukitzea, leku itxietan errazago mantentzen baita beroa.

Etxeko gela batzuetan aireztatze-saretak daude, eta, ondorioz, zaila izaten da gela horiek berotzea. Normalean bainua eta sukaldea izaten dira eta, beraz, garrantzitsua da atea ixtea, etxean berotasunari eusteko.



Kondentsazio-galdara: erosoak eta eraginkorrak

Espainiako teknologiarik ohikoena gas-galdarak dira: etheen %33k gas-galdarak erabiltzen dituzte etxeak berotzeko eta baita ur beroaz hornitzeko ere. Funtzionatzen ari diren galdara horietako asko ez dira kondentsaziozkoak eta ez dira oso eraginkorrak; beraz, galdara zahar bat baduzu, balora ezazu eredu berri batekin edo beste teknologia batekin ordezkatzeko aukera. Egokiak dira eremu hotzetako etxebizitzetarako. Horrelako galdarak eta arotermia-sistemak erabiltzea beste urrats bat da, egunen batean, energia-kontsumo ia nuluko etxebizitzak eta ingurumena gehiago errespetatzen dutenak lortzeko.

fonto.amana@gmail.com

AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637

Jardines
Iturgintza

Jardiñeta, 11 B info@fontaneriajardines.net

Untzaga, 11 / 943 20 27 73
almecalefaccion@almecalefaccion.com

Laguntza Teknikorako
Zerbitzu Ofiziala

BAXI
De Dietrich

ame
almecalefaccion, S.L.

Calbeton, 23
943 12 07 91

Azpiri
EIBAR • AMOREBIETA • DONOSTIA

Matsaria, 2
943 20 35 12

Autismoari atepak parez pare zabaltzen



Otsailaren 1ean Coliseoko atepak parez pare zabalduko dira autismoari buruz berba egiteko. Eta ez da edozein modutan egingo. Hizlariak autismoa inork baino hobeto ezagutzen dutenak izango dira: familiakoak eta autistak. Erraza ez den arren, "armairutik atera" eta autismoa zer den azaldu nahi digute herritar guztioi.

Autismoaren Espektroaren Nahasmenduaren gaineko argibideak emango dituzte datorren asteke eguenean, otsailak 1, Coliseo antzokiko areto nagusian, 18:00etan hasiko den ekitaldian. "AUTISMOAZ HITZEGIN DEZAGUN" izenburupean, ekitaldiko protagonista nagusiak autismoa gertutik bizi dutenen ahots autentikoak eta hunkigarriak izango dira. Topaketa horrek plataforma bat eskainiko die autisten senideei eta autismoa dutenei euren esperientziak, erronkak eta arrakastak partekatzeko eta gure gizartean ulermena eta onarpena sustatzeko.

GAUTENAK Argatzako Jardinetan dituen lokaletan elkartu gara ekitaldian parte hartuko duten hizlarietako batzuekin. Debarrena eskualdeko GAUTENAKo familien artean antolatu dute ekitaldia, Eibarko Udalaren laguntzarekin. "Au-

tismoa zer den helaraztea nahiko genuke. Hain zuzen ere, gure bizipenak, esperientziak eta beharrak azaltzea gustatuko litzaiguke. Ekitaldia dohainik izango da eta herritar guztiak gonbidatuta zaudete. Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea. Beraz, etorri eta kitto", diote.

Autismoari ikusgarritasuna eman nahi diote ekimen horren bidez. Jara Larreategi GAUTENAKo psikologoa eta autismoan aditua da eta berak azaldu digunez, "2019an Gipuzkoa mailan, eta Eibarren ere, *Urdinduz* ekimena egin zen, gizartea autismoaren inguruan kontzientziatzeko. Orditik hona ez da ezer egin. Guraso talde desberdinekin elkartzen naiz eta iruditu zitzaigun jendearengana iristeko modurik onena gaia modu pertsonal batean, hau da, lehenengo pertsonan tratatzea zela".

Ikuspegi edo alor desberdinetatik landuko da autismoa. Bestek bes-



Debabarreneko familien artean antolatu dute otsailaren 1eko ekitaldia. ANAIAZPURUA

te, ume oso txikiak dituzten familiak egongo dira, familiaren ikuspegia landuko du bikote batek, 24 urteko semea duen ama batek bere esperientziak azalduko ditu, ahozko hizkuntzarik gabeko haur autistei eta haien errealitateari buruz arituko da ama bat, anaia baten testigantza egongo da eta, hori guztiaz gain, emakume autista batek bere bizipenak azalduko ditu.

Goiko argazkiko emakumeek azaldu digutenez, "mito asko dago autismoari buruz, eta, oro har, jendeak ez gaitu ulertzen. Gure helburua da autismoaren perfil desberdinak ezagutzera ematea eta, bidez batez, gure beharrak mahai gainean jartzea".

Parte-hartzaileek hobeto ulertuko dute mundua autismoa duen pertsona baten ikuspegitik nola esperimintatzen den, eta familiak nola ikasi duten eurei egokitzen eta laguntzen.



Euren bizipenak kontatuz, familiak autismoa zer den helarazi nahi diete herritarrei

Hizlariak autismoa gertutik bizi dutenak izango dira: autistak eta euren familiak



URTE behin bakarrik betetzen dira-eta

1924ko urtarrilak 30. Egun horretan sortu zuten Eibarko Klub Deportiboa. Datorren asteko martitzenean data horren mendeurrena ospatuko dugu eta, horretarako, eibartar guztion parte-hartzea bultzatuko duen egitaraua prestatu dute elkatekoek. Goiz-goizetik hasita, egun osoa hartuko duten aktibitateak lotu dituzte Deporrekoe, adin guztietako jendea hartuko dutenak. Dena dela, bezperan abiatuko da horietako bat: Urkorako bidea argiztatzekoa. Bi egun berezi horiekin hasiko da, beraz, horrelako data bereziak merzei duen ospakizun-multzoa, urtean zehar aurrera eramango direnak. Ekitaldiak denetarikoak izango dira, "gehienbat parte-harztaileak" eta gure Depor inoiz baino presenteko izango dugu 2024. urte honetan. Zorionak eta Deportibo bilakatu gaitezen, beraz!

Datorren astelehenean, hilaren 29an, klubaren mendeurren egunaren bezperan, Urkorako bidea argiztatzeko deialdia egin dute klubetik: "300 lagun elkartu nahi ditugu Arrajolatik Urkorako bidea

argiztatu eta mendeurrenari hasiera emateko argazki zoragarria lortzeko asmoz". Ekintza arratsaldeko 18:15etik 19:15era artean egiteko asmoa dute eta, klubetik diotenez, "deia zabaldu eta berehala 50 lagunek eman dute izena. Ehunekin

ere nahikoa izango litzateke akaso, baina 300ekin, bakoitzaren arteko 5-6 metroko tartea ezarritz, asmatzeko moduan gaudela uste dugu". Aurretik ere probatxo bat egitekoak dira, "argazkilariek izango dutelako azken hitza". Eguraldiak ere zertxobait laguntzea ez litzateke txarto egongo.

Behin martitzenera helduta, goizeko 09:00etan mendi-irteera abiatuko da Erlora. Goizeko 08:00etatik 16:30ak arte topaketak izango dira Eibarko ikastetxeetako ikasleekin Astelena frontoian; horretarako, Uni Eibar-Ermuako kiroletako zikloetako ikasleen laguntza izango dute. Eta 17:30etik 19:00ak arte beste saio batzuetarako tartea izango da esparru berean, Astelena. Alde batetik, 100 kilometro egingo dituzte korrika zintan, bost korrikalarien parte-hartzearekin: Asier Cuevas, Julen Teran, Aitziber Urkiola eta Oihane Sarasketak osatutako laukoteari korrikalari herrikoi bat



Kalamuako iturria da Klub Deportiboak egindakoetako bat.



Aurreko asteko eguaztenezan egindako aurkezpen-ekitaldian klubaren 13 batzordeetako ordezkariak izan ziren, beste batzuen artean.

gehituko zaio. Beste 100 kilometro osatuko dituzte bizikletan rodiloan, hor ere bost txirrindularirekin: Jokin Amorrosta, Pello Osoro, Maria Gallastegi eta Ane Ziaranek osatutako laukoteari beste txirrindulari herriko bat gehitzeko. Pilotan ere egingo du 100 laguneko taldeak, barru modalitatean, bost azpitaldetan banatuta. Eta ez dira faltako xakeko partida azkarrak.

19:00etan Klub Deportiboaren historia laburbiltzen duen 10 minutu inguruko bideoa proiektatuko dute frontoian bertan. Eta, Astelenatik irtenda, Errebalera joko dute, hor klubaren sorrerako akta irakurtzeko 19:30ean. Behin hori amaituta,

Astlehenean Urkorako bidea argizatzea izango da martitzeneko egun osoko ekitaldiak pizteko "txaplihua"

20:00etan, berriro kalejiran klubaren egoitzara (T. Etxebarria) bueltatuko dira, 20:10ean sokadantza egiteko egoitzaren aurrean. 20:25ean errotulu berria bistaratzeko ekitaldia egingo da, 20:30ean familia-argazkia aterako dute eta, azkenik, 21:30ak arte, egunari amaiera emango dion luntx irekia izango da klubean. Klubetik diotenez, "hainbat Federazioetako ordezkarien presentzia ziurtatu digute".

Hori bai, Astelena frontoian egingo diren ekitaldietan, bertan egiten den kilometro bakoitzeko klubak



Iñaki Osoro da gaur egungo presidentea.

euro bat jarriko du Zaporeak elkartearantzat: "Bertaratu eta parte hartuko duten guztiei ere Zaporeak elkartearen ekimenak babesteko ekarpena egitea eskatzen diegu". Greziako Lesbosen errefuxiatuen alde lan egiten duen elkarteari laguntzea erabaki dute Deporrekoei, "egoki ikusten dugulako premia larrian daudenekin eskuzabalak izatea". Horrela, barruetan ere bakoitzeko 2 euro ipiniko ditu Deporrek eta "bezperan Urkorakoan parte hartzen dutenen bakoitzeko beste bat".

Ikusten denez, ikuskizuna baino, jendearen parte-hartzea lehenesten dute. Ekimenetan parte hartu nahi dutenek 943201904 telefono zenbakira deitu dezakete edo info@deporeibar.com helbidera idatzi.

Ia 3.000 bazkideren kluba

Gaur egun Klub Deportiboak "2.700 bazkide pasatxo izango ditu", Iñaki Osoro presidentearen esanetan. Azken urteotan ez dela alde handirik izan dio, "75. urteurrenaren bueltan 4.000ra iritsi izan baginen ere; orduan, baina, bajarik ere ez zen ematen eta bazegoen kuotarik ordaintzen ez zuenik. Zerrenda garbitu eta

milatik gora ezabatu genituen. Orain ohikoa izaten da aktibitatea egiteari lagatzerakoan baja ematea”. Lehen lotura hori barneratuago zutela dio berak, “bazelako jaio eta berehala bazkide egiten zituztenak”.

Datorren asteko ekitaldietatik kanpo, izango dira beste asko urtean zehar garatuko direnak, “guztiak ere ukitu bereziarekin”. Maiatzaren azken asteburuko Euskal Jaia eta ekainaren lehenengoko Klubaren Eguna dira horietako batzuk, bestela ere urtero erreferentziazkoak izaten direnak. Klubak egiten duena “kalera ateratzeko” asmoz, hainbat ekitaldi izango dira 2024an: “Mendiaren kale eguna izango dugu, baita Atletismoarena ere, Squash-a ere plazara aterako dugu pista eta guzti, maiatzean 100 kilometroko Traila osatuko dugu inguruko punta guztiak batuz, Txirrindularitzan uztailean afizionatuentzat Arrate Igoera egingo dugu, irailean bizikleta gaineko kale-kriteriuma hor egongo da, Pilotak ere izango du bere protagonismoa, pilota herrian zabalduz eta jardunaldiak eginez, Eskalada jardunaldiak ez dira faltako, ...”. Bestalde, Xakeko Gipuzkoako txapelketa guztiak Eibarren



Iñaki Osoro eta Aresatz Usobiaga presidente-ordea, aurreko asteko aurkezpenean.

"Urtean zehar egingo ditugun ekintzetan jendearen parte-hartzea lehenetsiko dugu ikuskizunaren aurretik"

izango dira aurten, Urpekaritzan Euskadiko Apnea Txapelketa jokatuko da kiroldegian martxoan, eta Gipuzkoako Atletismo Gala ere Coliseora ekarriko dute oraingoan.

Hortik kanpo, “badugu iturriak eta bideak berritu eta errekeratze asmoa ere”, diosku Deporrek presidentek. Udaberrian hasiko dira bideak garbitzen, “Udalarekin elkarlanean, bideen katalogoa osatzeko”. Eta, urteurrenaren karietara, kale-erropa salgai jarriko dute egun hauetan: “Asmoa dugu kirol aktibitateetarako arropa guztia berritu eta batasun bat emateko, diseinu aldetik ere”.

Askoren artean egindako bidaia

Eibarko Klub Deportibotik izen handiak pasatu dira, batzuen kasuan presidente kargua izatera iritsi direnak: “Hor ditugu sorrerako Jose Laskurain, geroagoko Juan San Martin, Juanito “Txoko” bera, Paco Larrañaga “Pakol”, Marcial del Amo... Gehien kasuan aurretik batzorde bateko presidente izatetik klubeko presidente izatera pasatutakoak”. Baina Pedro Agirregomezkorta “Petrus”-en figura nabarmenduko luke Osorok: “Inoiz ez da inongo presidente izan, baina



Argazkilaritza, Atletismoa, Dantza (Kezka), Eskia, Espeleologia, Kultura, Mendia, Pilota, Urpekaritza, Xakea, Txirrindularitza, Squasha eta Aldizkaria dira klubeko 13 batzordeak.

boluntariorozan jardun izan du ume-umetatik 80 urte bete arte, gaitasun fisikoari eutsi dion denbora guztian: xakean, aldizkarian, eskian, goi mendiko arduetan, Unben umeak entrenatzen...”.

Hasierako batzordeak atletismoa, txirrindularitza, alpinismoa eta pilota izan ziren. Eta 1924ko urtarrilaren 30eko sorrerako aktan irakurri daitekeenez, bazkide bakoitzak pezeta bat ordaindu behar zuen hilero eta 50 ehuneko aspirante zirenek. Mendiaren eta txirrindularitzaren bueltako ekitaldiak nagusitu ziren batez ere sasoi hartan, hainbat txango eta proba antolatuz. Osorok dioenez, gainera, gerra aurreko urte haietan nabarmentzekoa da emakumearen presentzia: “Orain arte ez da emakume presidenterik izan, nahiz eta gaur egungo zuzendaritzan presentzia nabarmena izan. Baina betidanik egin dute lan ezkutu hori, lan administratiboa”.

Klubaren alderdi soziala nabarmendu nahi du Iñaki Osorok; hori bai, “lehiatzea helburu ez izanda ere, beti lehiatzeko prest”. Espiritu horren adibide dira klubetik sortutako Simon Aldazabal edo Bolunburu atletak, eta Eli Ojanguren eta Lusarreta mendizaleak, sasoi ba-



Jose Laskurain izan zen lehen presidentea.



1952tik T. Etxebarria kalean du bere egoitza Klub Deportiboak. Aurretik, baina, Maria Angelako lokaletik Elorzatarren etxeko kafetegira “bidaiaitu” zuen eta, handik, Calbeton kaleko Tupi tabernara gaur egungo “bere etxera” iritsi aurretik.

tean, edo geroagoko Asier Cuevas, Patxi Usobiaga edo Odei Jainaga maila handiko kirolariak. Mendi irteerak, atletismo probak eta helduen dantzak Deporrek eskaintzen duen zerbitzu sozialaren froga diren bezala, boluntariorozaren figura ahaztu barik. Promozio eta zerbitzu horrekin lotuta, “aterkiaren funtzioa” azpimarratzen du presidenteak: “Argazkilaritzaren batzordea barrutik sortu zen bezala, orduko mendizaleak kamara lagun zutela ibiltzen zirelako beti, igeriketari eta geroagoko squash-ari babesa eskaini izan zien klubak”. Sorrerako kirol arloa kulturara zabaldu zen 50.eko hamarkadan: “Sasoi hartan kultura eta euskararen gosea bizi izan zen, ‘Kezka’ aldizkariaren izenak berak ondo adierazten duen bezala”. Askatasunari tarte ireki zion klubak geroago atea irekiko zizkion Arrate Kultur Elkartetik zetorren aportazioari ere, Euskal Jaiarekin esaterako.

Eguneratzea ere tokatzen da

Jakina, badira aldeak sorrerako eta 100 urte geroagoko klubaren

artean, nahiz eta betiko espirituari jarraitu dioten. Iñakik dioenez, “lau aktibitatekin sortu bazen ere, denen artean garatu zuten proiektua; denborak aurrera egin ahala, bakoitzak gehiago landuko du bere arloa”. Ahulezi bezala ez, baina arazotzat jotzen du “gaur egun administrazioak eskatzen duen papeleoa, lanaren %80 hartzen duelako ia; horrek erreleboa ere zaildu dezake”. Administrazioak lan hori profesionalizatu nahi duela dio, “baina ez da guztiz posible. Tourrean bertan ikusi da: azken unera arte boluntarioak eskatzen ibili ziren”. Horregatik, boluntariorozaren eta profesionalizazioaren arteko “oreka” bilatu behar dela dio.

Hurrengo erronkarengatik galdetuta, “egiten duguna kalean ezagutzera eman” esaten digu. Horretarako, baina, ez du bide aproposagorik bilatzen “egin eta, ondoren, egin” baino. Jendeak Deporrek zer egiten duen jakiteak aldebiko onurak dakarzikielako: lanaren errekonozimendua batzuentzat eta, bestalde, zerbitzuaz gozatzeko aukera besteontzat.



Calvo igerilaria estatuko onenkin dihardu lehiatzen

Eibar Igerixaneko igerilari elgoibartarrak azken asteburuan Palma de Mallorcako Son Hugo igerilekuan izan zen parte hartzen junior eta infantil mailetako Federazio Autonomikoen arteko XII. Espainiako Txapelketan. Barixakutik domekara arte jokaturako lehiaketa horretan, Paula Calvok lau probatan jardun zuen Euskadiko Federazioa ordezkatzuz: bizkar erako 50, 100 eta 200 metrokoetan eta 100 librekoan. Ez hori bakarrik, zilarrezko bi domina ere irabazi baitzituen, 100 eta 200 metro bizkarrekoetan.

Asola Berriko Olaitz Rodriguez Neguko Bolaren azpitxapeldun geratu da

Barinagako bolategian jokaturako txapelketa horretako azken jardunaldian Eibarko bolatokiko ordezkariak bikain ibili ziren. Juanjo Uranga eta Santi Henao nagusitu ziren tiraldi horretan, sei txirlorikin, parrekoetan Uranga irabazle ateratzeko. Lau txirlo bota zituen Barinagako Iker Arizmendiarieta hirugarrenak, eta bere atzetik sailkatu ziren Lander Odiaga markinarra, Olaitz Rodriguez eibartarra eta Xabier Solozabal elorriotarra.

Azken sailkapen orokorrean Barinagako Iker Arizmendiarieta nagusitu zen, 17 txirlorikin, Olaitz Rodriguez eibartarra txirlo bakarrerera bigarren tokian sailkatzeko; hirugarren postuan geratu zen Elgetako Sebas Aranzabal. Irabazleak, txapelaz gain, Eibarko Mugika Harategiak eskainitako baserriko haragi eta euskal produktuez osatutako otarra bereganatu zuen. Olaitzek sari bikoitza izan zuen: bigarren izatearren bi lagunentzako bisita Luis Cañas bodegara, eta emakume onena izateagatik Magukaz artisautzaren eskutik jasotakoa.



Olaitz Rodriguez, Neguko Bola txapelketan saritutakoekin.

Deporreko xake taldeak bi garaipenkin hasi du denboraldi berria

Gipuzkoako Taldekako 2. mailako txapelketan parte hartzen duen Eibarko Klub Deportiboko taldeak bi garaipenkin hasi du denboraldia. Lehenengoko jardunaldian 1-3 irabazi zion Zumaiako B-ri, Diego Olmo, Xabier Beorlegi eta Diogo Valeren garaipenei esker; Jon Arana izan zen galtzaile bakarra. Eibarren jokaturako bigarren jardunaldian, eibartarrak emaitza berarekin nagusitu ziren. Kasu ho-



retan, Jon Aranak, Aitor Beorlegi eta Iker Garciaik euren partidak irabazten zituzten bitartean, Diogo Valek galdu egin zuen berea.

Eibartarrak bigarren dira sailkapenean, Bergara A-ren atzetik eta Zaleak taldearen aurretik, hirurak ere sei punturekin. Datorren zapatuan izango duten erronka ez da nolana hikoia izango, Zaleak Berharako bigarren taldeari egingo baitiote bisita.

Soria Deporrekopalistak Arrieta elgoibartarra izango du aurkari gaurkoan

Gaurko ohiko Astelenako pilota jaialdiak bi partidu hartuko ditu, bat pilotakoa eta bestea goma paletakoa. 19:00etan hasiko da Astelena frontoikoa, lehendabizi Udaberri Eskuz Binakako txapelketako kadeteen mailako partidurekin, Eibar 1 eta Lazkaoko bikoteak aurrez aurre hartuko dituen. Ondoren, Gipuzkoako Goma Paletaren banakakoan, Soria eibartarra eta Elgoibarko Lagunak taldeko Arrieta izango dira, nor baino nor, 7 koadroaren barruan, lehen faseko azken jardunaldian.

Bestalde, Udaberri Eskuz Binakako txapelketako bigarren jardunaldia jokatu eta gero, kadete mailako



Azpilikueta-Varona bikotea (Eibar 2) bere multzoko lehen postuan dago, eta bigarren tokian dago Urkiaga, Del Rey eta Segurola hirukoteak osatutako Eibar 1 taldea. Helden mailan Agirresarobe-Ibarra eta Conde-Azkargorta bikoteak 4. eta 5. postuan aurkitzen dira, hurrenez hurren.



Euskal Ligan jokatu du Eibar Eskubaloiko emakumezkoen kadete taldeak

Ane Montieles eta Andoni Perezek entrenatzen duten Eibar Eskubaloiko kadete mailako nesken taldeak Euskal Ligara igotzeko fasea gainditu eta mailaz igotzea lortu du. Elgoibar, Urdaneta eta Saieko bezalako aurkari gogorrei aurre egin ondoren, lorpen horrekin jarri zion ginga "inoiz ahaztuko ez duten" asteburu bikainari. Zorionak, beraz, Euskal Ligako talde berriari.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Sevilla - EIBAR (etzi, 18:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Mirandes (gaur, 20:30)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

Mulier - EIBAR B (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

VITORIA - Urduliz (bihar, 15:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Anaitasuna - EIBAR C (etzi, 16:30)

Erregionaleko Ohorezko Maila

Oiartzun - EIBAR URKO (etzi, 12:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

Euskalduna - URKI (bihar, 17:00)

Jubeniletako Ohorezko Maila

EIBAR - Logroñes (bihar, 12:30)

Jubeniletako Liga Nazionala

EIBAR B - Danok Bat (etzi, 12:30)

Kadeteetako Euskal Liga

EIBAR - Santutxu (bihar, 18:00)

FOBALI-ZALETUA

• Malape Taberna - Baserri (bihar, 09:00)

• Bar Marem - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

• Adahi Eraieder - Gastro Gilda (etzi, 09:00)

• BOJ - Xania Taberna (etzi, 10:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Ereintza - MEK EIBAR (bihar, 17:15)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Hondarribia (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Berango (bihar, 16:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Hondarribia (bihar, 13:30)

FRUGBIA

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

Getxo Etorbizuna - EIBAR (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Atletico SS - EIBAR (etzi, 10:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Artes. JUANTXO - Aloña Mendi (bihar, 14:30)

Modelberri - EIBAR B (etzi, 13:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Oiarso - EIBAR C (etzi, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

URBAT - Vallirana (bihar, 20:15)

Emakumezkoen Euskal Kopa

URBIAK - Larraina (bihar, 20:00)



Bi autobus Aitzorrotzera umeekin egindako irteeran

Klub Deportiboko mendi-taldekoek neguko egunsenti hotz bezain naturalarekin abiatu ziren Leintz Gatzagako Dorleta santutegitik eskol-umeekin egindako ikasturteko laugarren txangoan. Bi autobus bete zituen 52 haurrekin eta hainbat gurasorekin osatutako taldeak. Hasierako aldatzekin berehala sartu ziren berotan, atzean lagata izoztutako hainbat putzu eta belardi. Goiz erdian 736 metroko Aitzorrotzeko tontorra zapaldu zuten eta, bista paregabeak aurrez aurre zizutela,

eguzki izpien goxotasuna aprobeztatu zuten hamaiketako bertan egiteko. Bertatik bertara han inguruan dagoen koba txikian barneratu ziren haur batzuk, abenturarako duten grina erakutsiz. Handik Eskoriatza herrira jaitsi ziren eta, bidegorrian zehar ibilbidea zertxobait luzatuta, Torreasoko jolas-parkean amaitu zuten txango bikain hori. Egutegiko hurrengo irteera, bosgarrena, otsailaren 18an egingo dute, Donostiatik Pasaiaraino, tartean La Plata itsasargia ikusteko aukerarekin.



Hirugarren "Klasikoa" otsailaren 3an

Otsailaren 3an Klub Deportiboko mendiko talde batek egutegiko bigarren "Klasiko" irteera egingo du. Mendaur izango da tontorra, Aurtitz abiapuntutzat hartu eta Igantzi helmuga bihurtuta.

Mendaur gailur belartsuz osatutako mendigunea da. Hegoaldean Ezkurra ibaiaren haranen eta Iparraldean Bidasoa ibaiaren haranen artean kokatuta dago. Eta gailurretik euskal kostaldeko ikuspegi aparta eskaintzen da (Igeldo, Hondarribia...) eta baita Nafarroako mendikoa ere.

Txangoa 17 kilometrokoa izango da, goraka metatutako desnibela 1.154 metrokoa izanik; beherakoa, bestalde, 1.142 metrokoa.

Informazio gehiagorako edo izena emateko, Deporrek bulegora joan daiteke (martitzen eta eguenetan, 17:30-20:30) edo 943-201904 zenbakira deitu.



JON MIKEL MUJIKA

Primaderako liliak

Sarritan hitz egiten da gizakion garunak dituen gaitasun harrigarri eta kontaezinetaz. Baina, badaezpada, ez dira hainbestetan aipatzen gure ganbarak sufriarazten dizkigun egoera zentzugabe eta amorragarriak. Ez naiz ni izango buruan abesti bat sartu eta kantua burutik kendu ezinda denboraldi luze bat pasa duen bakarra, ezta? Doinu berari bueltaka, behin eta berriro, behin eta berriro.

Ba bai, halaxe nabil ni duela egun batzuetatik hona. Etxeko atea ireki eta ... *“Gaituzte ezkontarazi, maite ninduzun hain gutti...”*. Kotxean sartu eta ... *“Ezkontarazi gaituzte, ez zintudalarik maite”*. Korrika egitera irten eta *“Gaituzte ezkontarazi...”* dutxan sartu eta *“Ezkontarazi gaituzte ...”*. Astebete pasa daramat Benitoren doinuan, Primaderako Liliak kantatzen. Egoerak ia gogaitzeraino eraman nau momentu askotan, baina bi aldiz pentsatuta, gaitz erdi! Okerragoa izan zitekeen. Euskal kanta mitiko honen orde zitekeen La Macarena edo El Tiburón. Lertxundiren melodiarekin behintzat, kalean inkontzienteki txistukatzen hasten banaiz, ez nau inork epaituko. Ni nirera, *“Gaituzte ezkontarazi ...”*.

Kantuari hainbeste buelta eman ondoren, hitzek ia esanahia galdu dutenean, orduan hasten zara abestiari zentzua hartzen. Eta hasi naiz pentsatzen norekin gauden gogoz kontra ezkontuta, maite ez dugun zeri gauden lotuta. Eta etorri zaizkit burura Euskal Herriari tokatu zaizkion ezkontideak. Eta konturatu naiz Espainia eta Frantziara lotu gintuztenean, hemen ere ezkilak isilik zeudela. Eta orain, Mixel Labegerie-ren abestiak amaieran dioen bezala, *“elgarrekin behar bizi...”* *“... behar dugu elgar maite”* dioskute. Ez dakit ba...

“Eta hasi naiz pentsatzen norekin gauden gogoz kontra ezkontuta, maite ez dugun zeri gauden lotuta”



Ikerfolk-Argiak jasotako Aldundiko Ondare Sarian Kezka dantza taldea izan zen

Euskal kultur ondarea aitortu eta berreskuratzeko konpromisoagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak Ondare Saria eman dio Ikerfolk-Argiari, eta elkarte horretako parte den Kezka dantza taldea ere aurreko astean egin zen ekitaldian egon zen, ez bakarrik saria jasotzeko poza ospatzen, ekitaldian ere parte hartu baitzuen. Izan ere, Kezka dantza taldeko kideek protagonismo berezia izan zuten sari-banaketan, aurkezlea Enrike Izagirre izan zen-eta. Ainhoa Larrañagak eta Josu Garatek, berriz, bertan dantzatu zuten, eta Oier Araolazak zuzendu zuen ekitaldia. Argazkian, Kezkako ordezkariek, Maria Jose Telleria Gipuzkoako Kultura zuzendariarekin, eta Andoni Zabala Eibarko Udaleko kultura zinegotziarekin.

Juan Antonio Urbeltz Ikerfolk-Argiaren buruak jaso zuen Ondare Saria, Goizane Alvarez Gipuzkoako Kultura Diputatuaren eskutik, Donostiako Santa Teresa komentuan egindako ekitaldian. Kultura ondarea babesteko, ikertzeko eta zabaltzeko egindako lanagatik nabarmendu diren erakunde eta norbanakoak saritzen dira Gipuzkoako Ondare Sariaren bidez. Kezka dantza taldeak 30 urte daramatza Ikerfolk-Argiarekin kolaboratzen eta, besteak beste, elkar-lan horren emaitza dira Eibarko aurraskua edo soka-dantzaren berreskuraketa edo Arrateko ezpata-dantza.



Elesky piano-jole eta streamerraren kontzertua

UniEncounter teknologia berrien eta informatikaren inguruko topaketaren egitarauaren barruan, otsailaren 9an kontzertua emango du Elesky piano-jole eta streamer ezagunak Uni Eibar-Ermuan (antzokian). Elena Loredo 27 urteko Xixongo piano-jole gaztea da, eta pianoarekin musikaren mundua goitik behera aldatu du Twitch-en. Elesky izenarekin ezaguna da, eta bere bi pasioak (pianoa eta bideo-jokoen eta mangaren munduak) uztartzea eta ogibide bihurtzea lortu du. Filmen edo bideojokoen soinu-bandak interpretatzeari esker, Twitterren bi urtez jarraitzaile-komunitate txiki bat lortu ondoren, 2017ean Twitch-era jauzi egin zuen.



Coral Herrera idazlearen hitzaldia Andretxean

Coral Herrera Gomez idazle eta komunikatzaile feministak “La Revolución amorosa: Los cuidados en el centro” hitzaldia emango du Andretxean, otsailaren 5ean, 18:30ean. Bere berbetan, “emakumeok aspertuta gaude maitasunagatik sufritzeaz: bikote-maitasuna zoriontasuna lortzeko modu posible bakartzat izan dugu, baina orain maitasuna matxismotik askatu nahi dugu eta goitik behera eraldatu”.



Maria Jimenezen inguruko ikuskizun musikala gaur

Gaur 19:00etatik aurrera “Quiero ser Maria Jimenez” antzezlan musikala aurkeztuko dute, Coliseo antzokian. Rosalinda Galan protagonista duen ikuskizunak abeslari gazte baten bizitza kontatzen du, Maria Jimenezen ibilbide artistikoaren bidez. Funtzioan artista polemikoaren bizitza aurkezten da, eta bere kanturik ezagunenak interpretatzen dituzte. Rosalinda Galan aktore, flamenko-kantari eta konpositore sevillarrak proiektu hau gauzatzeko Maria Jimenezen baimena dauka. Carlos Harillo Magnetzen zuzendaritzapean, antzezlearekin batera Mario Rubio (gitarra) eta Roman de la Almodena (perkusioa) arituko dira, musika zuzenean eskaintzen. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Eibarko Musika Bandaren kontzertu sinfonikoa Coliseon

Eibarko Musika Bandak kontzertu sinfonikoa emango du domekan, 12:30ean Coliseon. Andoni Vazquezek zuzenduta, El Amor Brujo, Requiem de Mozart, La Gazza Ladra, Romeo y Julieta, Tannhäuser eta Carmen interpretatuko dituzte. Sarrera doan da, baina gonbidapena hartu beharko da aurretik, Kutxabank zerbitzuaren bitartez edo, bestela, antzokiko leihatilan.



Koko-dantzetarako entsegua egingo da eguenean Errebalen

Eibarko Kezka dantza taldearen eskutik, otsailaren 3an izango dira aurtengo Aratosteetako koko-dantzak. Beti bezala, goizean Eibarko baserrietan ibiliko da koko-dantzari eta koko-marruen konpartsa, koko-eskean, eta arratsaldeko 19:00etatik aurrera, berriz, herriko kaleetan kalejira egingo dute. Koko-dantzetan parte hartu nahi dutenentzat entsegua egingo da Errebalen, eguenean (otsailak 1), 19:30ean. Izena emateko, 605 71 14 29 WhatsApp zenbakira edo kezka@dantzan.com helbidera mezua idatzi daiteke. Arropak ere entsegu eguenean banatuko dituzte.

Jose Miguel Laskurainen konposizio berria YouTube

Jose Miguel Laskurainek orkestra sinfoniko eta abesbatzarentzat konposizio berria aurkeztu du YouTube plataformaren bidez. Azaldu digunez, “Agur Maria bat da, maila ertaina duten taldeek interpretatzeko modukoa. Teknikari begira ez da zaila, baina badu bere zailtasuna maila artistikoan”. Bideoa ikusteko lotura honako hau da: https://youtu.be/VByAHZ_YSPw.

Zine-forum feministaren saioa

Udaleko Berdintasun zerbitzuaren laguntzarekin Pagatxa Emakume Elkartek antolatzen duen zine-forumean, Susanna Nicchiarelli zuzendariaren Miss Marx filma proiektatuko dute gaur, 18:30ean, Portaleko areto nagusian. Sarrera librea da, interesa duen edozeinentzat.





AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		4					9
7						2	
				6	2	5	8
		3	8				6
4							2
	8				5	3	
8	1	9	4				
		7					6
2						1	

7	1	4	2	8	9	6
9	8	1	5	2	7	3
5	2	8	9	4	1	3
3	1	9	4	2	7	5
8	9	4	2	7	3	1
1	2	3	4	5	6	7
2	3	4	5	6	7	8
3	4	5	6	7	8	9
4	5	6	7	8	9	1
5	6	7	8	9	1	2
6	7	8	9	1	2	3
7	8	9	1	2	3	4
8	9	1	2	3	4	5
9	1	2	3	4	5	6

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			4	2	3		
	3	7		8			2
			3			9	1
	4						
3	8				5	9	
						6	
4	7			3			
8			2		1	5	
		2	9	4			

**S
U
D
O
K
U**

4	1	2	3	4	5	6	7	8	9
5	2	3	4	5	6	7	8	9	1
6	3	4	5	6	7	8	9	1	2
7	4	5	6	7	8	9	1	2	3
8	5	6	7	8	9	1	2	3	4
9	6	7	8	9	1	2	3	4	5
1	7	8	9	1	2	3	4	5	6
2	8	9	1	2	3	4	5	6	7
3	9	1	2	3	4	5	6	7	8
4	1	2	3	4	5	6	7	8	9
5	2	3	4	5	6	7	8	9	1
6	3	4	5	6	7	8	9	1	2
7	4	5	6	7	8	9	1	2	3
8	5	6	7	8	9	1	2	3	4
9	6	7	8	9	1	2	3	4	5

soluzioa

Urtarrilak 26 - Otsailak 1

BARIXAKUA 26

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Jolasak, euskaraz, 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Urkizu. Doan,

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:30/19:30 Sarrerak erosteko alde aurretiko hitzorduen banaketa. Coliseo

ZINE-FORUMA

18:30/20:30 "Miss Marx" (Susanna Nicchiarèlli). Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



ANTZERKIA

19:00 "Quiero ser María Jiménez" antzezlan musikatua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



ZAPATUA 27

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00 Sarrerren salmenta, alde aurretiko hitzorduaren arabera. Coliseo.

IKASTAROA

11:00 San Blas opilak egiten ikasteko. Arrate Kultur Elkarte.

HAUR PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30 Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin). Astelena frontoia.

MUSIKA

17:00 eta 19:00 "Golazen 10.0" kontzertua (Pausoka). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat eta haien familientzat. Ipurua kiroldegia.

ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Bidaia liluragarria" ipuin-kontakteta musikatua, Perli eta Koxkoloren eskutik. 4-7 urte bitarteko haurrentzat. Portalea (areto nagusia).

DOMEKA 28

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00 Sarrerren salmenta, alde aurretiko hitzorduaren arabera. Coliseo.

ZUHAITZ LANDAKETA

10:00 Zuhaitzak landatzeko irteera, Eibarko Baso Biziak elkartearekin. Sautsiko parkea.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseo.

ASTELEHENA 29

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00 Sarrerren salmenta, alde aurretiko hitzorduaren arabera. **17:30/19:30** Sarrerren salmenta (ohikoa). Coliseo.

KLUB DEPORTIBOAREN MENDEURRENA

18:15/19:15 Urkorako bidearen argiztapena. Arrajolatik Urkora.



MARTITZENA 30

KLUB DEPORTIBOAREN MENDEURRENA

08:30 Mendi-irteera, Erlora. **08:00/16:30** Iksaleekin topaketak. Astelena frontoia. **17:30/19:00** Korrika zintan, bizikleta rodiloan, pilota barruak eta xakea. Astelena frontoia. **19:00** Bideo-emanaldia: Deporrek historia laburra. **19:30** Akta fundazionalaren irakurketa. Errebal. **20:00** Kalejira. Errebaletik Deporrera. **20:10** Sokadantza. Depor aurrean. **20:25** Deporrek errotulo berriaren bistaratzea. **20:30** Familia argazkia. **20:35/21:30** Luntxa. Depor.

EGUENA 1

HITZALDIA

10:00/12:00 "Mendebalde gerran: komunikabideen propaganda eta militarizazioa". Hizlaria: Asier Blas de Mendoza (Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziatua eta doktorea UPV/EHU). Sarrera librea. Armeria Eskola.

IKASENPRESA AZOKA

10:00/13:00 Lanbide Heziketako ikasleek sortutako era guztietako produktu eta zerbitzuak. Untzaga eta Txaltxa-Zelai.

HIZALDI-MAHAINGURUA

18:00 "Autismoaz hitzegin dezagun". Gautenak antolatuta. Sarrera librea, Coliseo (areto nagusia).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **28an:** 20:00
- **29an:** 19:30

“Fallen Leaves”
KOMEDIA



2023/Finlandia/81'
Zuzendaria: Aki Kaurismäki
Aktoreak: Alma Pöysty, Jussi Vatanen, Anna Karjalainen
Erromantzea/Alkoholismoa

2 ARETOA

- **28an:** 17:00, 20:00
- **29an:** 19:30

“La zona de interés”
DOKUMENTALA



2023/Erresuma Batua/106'
Zuzendaria: Jonathan Glazer
Aktoreak: Sandra Hüller, Cristian Friedel, Ralph Herforth
Holokaustoa/Nazismoa

ANTZOKIA

- **27an:** 22:30 (1 aretoa)
- **28an:** 17:00 (1 aretoa), 20:00
- **29an:** 19:30

“El correo”
AKZIOA



2024/Espainia/101'
Zuzendaria: Daniel Calparsoro
Aktoreak: Aron Piper, Maria Pedraza, Luis Tosar
Thriller/Errealitatean oinarria

ANTZOKIA

- **27an:** 17:00 (2 aretoa)
- **28an:** 17:00

“Robot Dreams”
ANIMAZIOA



2023/Espainia/102'
Zuzendaria: Pablo Berger
Zientzia-fikzioa/Lagunartea/80. urteak



Virginia Herrera Cañas

2. URTEURRENA
2022/01/25

Zure bizipoza eta irribarreak gure bihotzak argitzen jarraitzen dute eta, zure hutsunea gero eta gehiago sentitu arren, inoiz ez dira itzaliko.

Zure maitasuna betirako gure bihotzean.
VIR, MAITE ZAITUGU.



– ETXEOKEK –



Lourdes Izagirre Boneta

2024/01/19

ERREBAL BIZIRIK
elkarteko lagunak

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ARATZ!** Konturatu orduko 4 urte bete zorion oparitu deskuzu. Jarraitu beti bezain alai eta zintzo, danon bizipoz. Etxekuon partez.



Zorionak, **ELENE!** Astelehenian 11 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez-be, Enekoren partez.



Zorionak, **MARKEL!** Astelehenian 6 urte beteko dozuz-eta, mutil haundi! Patxo haundi bat famelixaren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak, **POL,** maitxia! Atzo 5 urte bete zenduazzen-eta. Segi beti bezain jator eta maitekorra izaten. Pillo pillo bat maitte zaittugu!!!



Zorionak, **ION,** martitzenian urtiak bete zenduazzen-eta. Ondo ondo ospatu. Laztan haundi bat laguneren partez.



Zorionak, **ALVARO,** hillaren 23an 3 urtetxo egin dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez, pitxin.



Hillaren 18xan jaixo zan **JUNE** Berrizbeitiari ongi-etorrixa gure famelixara. Patxo potolo bat, printzesa, danon partez.



Zorionak, **EKHI!** Domekan 3 urte egingo dozuz-eta. Nahiz eta urruti egon, zure eguna ospatuko dogu. Musu haundi bat. Happy Birthday!



Zorionak, **ADRIAN,** hillaren 21ian 5 urte bete zenduazzen-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **JARE!!** Gaur egun politta pasatuko dogu zure 5 urtiak ospatzen!! Musu haundi bat aitta eta amaren partez. Asko maite zaitugu!!



Zorionak, **ELENE,** gaur 7 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat aitate eta amamaren partez.



Zorionak, **JULEN,** 7 urte zure irrifarrak gozatzen. Jarraitu horrelako alai. Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, **UXUE,** martitzenian 9 urte beteko dozuz-eta!! Musu pillo bat, printzesa, famelixaren eta, batez be, Ibaixoren partez!!



Zorionak, **JON!** Astelehenian 2 urte egin zenduazzen-eta, txapeldun. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MIKEL** eta **ANDER,** gaur 7 urte betetzen dozue-eta. Egun zoragarrixa pasatu! Etxekuen partetik.



Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai, aldi baterako: hilabeteka, asteka. Eguzkitsua, 3 logela, 2 balkoi eta igogailua zero kotatik. Guztiz jantzita. 657795876 (arratsaldez).
- Emakumeak 2 logeleko pisua hartuko luke errentan Eibarren. Kontratu finkoarekin. 688744217. Ivon Peña.
- Emakume batek etxebizitza hartuko luke alokairuan. 603258452.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Txomon garaje itxia alokagai. 615775536.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (formazio ziurtagiriarekin). Esperientzia. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 632881068.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Orduka. 631229408.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 660919423.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geratria laguntzaile tituluarekin. 688818176. Rosa.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo pasiatzeko eta peoi bezala. 604220024.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita aste-buruetan ere. 641417815.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo ospitalean ere. Orduka. 632768653.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta txakurrak pasiatzeko. 602393678.
- Emakume arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako, batez ere interna moduan. Esperientzia eta erreferentziak. 632270215.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 637222318 eta 642577823.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 601511174.
- Gizona eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 679412841.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Baita gauzez ere. Orduka. 602490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.

4.2. Langile bila

- Zerbitzari euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 634277015.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Goi mailako jazz kontrabaxuko ikasleak musika teoria, baxu elektriko eta kontrabaxuko klaseak ematen ditu. 673366678. Alex.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- 105 zm-ko ohe artikulatua (triangeluarekin eta ezkerreko barrarekin) salgai. Gurrpil-aulkia + motorra, eta bainugelako gurpil-aulkia. Bakoitza bere aldetik erosi daiteke. 634410873 eta 677061025.

6.2. Eman

- 2 urteko bi txakur oparitutako nituzke. Labradore arrazakoa bat, eta ehizakoa bestea. Txertoaz eguneratuta. 653733457.
- Musika klasikako bilduma (100 CD) oparitutako nuke. 656732584.

LANBIDE HEZIKETAKO
IKASLEEK SORTUTAKO
ERA GUZTIETAKO
PRODUKTUAK ETA
ZERBITZUAK!

#ferlaikasenpresa | @ekingune

2024
FERIA-AZOKA
IKASENPRESA

Otsailak 1

10:00 / 13:00 h
EIBAR
UNTZAGA PLAZA

il lent

ekingune

Tknika

FP

Fp

Fp

zarelakopara

Izen-abizenak _____ Helbidea _____
Tfnua / emaila _____ NAN _____
Jaiotze data _____ K/K zenbakia _____

eta kitto!
eusgara elkarteak

Urkizu 11
943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkartea@etakitto.eus

URTEKO KUOTAK

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatua	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bec

Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
argentziak
610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HELBIDE
BERRIA: J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
3^{er} eta faxa:
info@cristalenaacha.com 943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

balta toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net



943-206776